



Ez zaituz nahasi sarean



ANE




JON



ANDER



KRISTINA



MAIDER



AB¹²

Ez zaitetz nahasi sarean



HERRIZAINGO SAILA
DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2012ko abuztua


© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Herrizaingo Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Sortzen Consultoría, S.L.

Itzulpena: Herrizaingo Saila



IGANDEA DA ETA ANE ETA MAIDER ZERBAIT HARTZEN ARI DIRA TABERNAN. UDA ETA OPORRAK LASTER HELDUKO DIRA.

... BADA, BAI, UZTAILEKO LIVE ROCK KONZERTUETARAKO SARRERAK ATERAKO DITUT...

APARTEKO PLANA...



... ETXERAINO LAGUNDU ZIDAN ETA GERO EGIN GENUEN.





MAIDER ETXERA HELTZEN DENEAN, IKUSI DU ANDERREK TUENTIN ETA FACEBOOK-EN ERANTSI DUELA.



ETA HASI DA BERE PROFILA IKUSMIRATZEN EA ZER TOPATZEN DUEN...

BISTAN DA MUTIL ONA DELA, "ANIMALIEI TRATU TXARRAK EMATEAREN" KONTRA DAGO ETA, GAINERA, DANCE MUSIKA GUSTATZEN ZAIO. ZORAGARRIA!

HARA, ZER SAMURRA, "MAITE DUDAN PERTSONAREN ONDOAN ESNATZEA" ORRIALDEA ERE GUSTUKOA DU. ZER POLITAAAA!

BANEKIEN NIK MAITAGARRIA ZELA. ETA BERE SENTIMENDU-EGOERAN "ZAILA DA" JARRI DU. UMMM... ZERGATIK OTE? BESTE HARREMANIK BA OTE DU?...



WHATSAPP BAT! USTE NUEN NIRE ZENBAKIA BOTAKO ZUELA! OKER NENGOEN BERAREKIN, BEHARBADA BERE GUSTUKO NAIZ BENETAN!



BITARTEAN, ANE ETA JON ZERBAIT HARTZEKO ETA HITZ EGITEKO ELKARTU DIRA.

ZER? ZER MODUZ BART GAUEAN, MUTIL? EGIN ZENUEN, EH? JEJEJE...

BAI, JEJE, ONDO PASATU GENUEN. EMATEN DU KRISTINA NESKA ONA DELA...

BEGIRA! BERA DAI BISTAN DA OSO KONEKTATUTA DAGOELA. WHATSAPPK ETENGABE BIDALTZEN ARI ZAIZKIT.



HARA! ORAIN WHATSAPPZALE BIHURTUKO ZARA? LEHEN EZ ZITZAIZUN BATERE GUSTATZEN!

BAI, HALA DA, ETA EZ ZAIT GUSTATZEN DENBORA GUZTIAN KONTROLATUTA EGOTEA ETA EDOZEIN TOKITAN ERANTZUN BEHAR IZATEA...



... HAU ITOALDIA! BARKATU...

...BLA, BLA, BLA, BLA, BLA...

ANDER TABERNA BEREAN DAGO BERE LAGUNEKIN ETA, INTERNETEN KONEKTATUTA DAUDENEZ, MAIDERREN TUENTIA ERAKUSTEN ARI ZAIE.

IKUSI NOLAKO NESKA KATXARROAREKIN EGIN NUEN.

AIZU, EDER-EDERRA DA. GAUR GOIZEAN IKUSI DUT ERANTSI DUZULA ETA BERE PROFILEAN SARTU NAIZ. BERE ARGAZKI GUZTIAK IKUSI DITUT. NOLAKO TITIAK DITUEN.



HAU DA HAU, MUTILAK! JAJAJA!!

FIU!

KOMUNA, MESEDEZ?

ANDER! TXERRI HALAKOA! NIRE LAGUNAREN LEPOTIK BARREKA ARI DIRA!

MAIDERRI ABISATU BEHAR DIOT...

HURRENGO EGUNEAN MAIDERREK ANDERREN LAGUNEN ESKARIAK JASO DITU FACEBOOK-EN...

?

[https:// www.facebook.com](https://www.facebook.com)

facebook Bilatu pertsonak, lekuak et

Zure laguna izan nahi du

Lagunak bilatu



Andoni Mazas

Onartu

Beste une batean

komunean lagun bat

Kaixo, panpoxa, Anderren laguna naiz. Erantsiko nauzu?



Gorka Gorri

Onartu

Beste une batean

komunean lagun bat

Erakutsiko dizkizazu titiak?

Ikusi zure lagunak izan nahi duten guztiak

MAIDER DESEROSO SENTITZEN HASI DA
ETA ANDERRI WHATSAPP BAT BIDALI DIO.



BITARTEAN, PARKEAN...



ARRAIOA!...
BATZUEK EZ DUTE
ULERTZEN EZ DELA
NAHITAEZKOA EGUN
OSOA KONEKTATUTA
EGOTEA.

JON, ZER
GERTATU DA?



ZER GAIZKI!
OSO GAIZKI AMAITU
DUT KRISTINAREKIN.

HASI ZEN ESATEN
WHATSAPPEI EZ NIELA
ERANTZUTEN, KONEKTATUTA
NENGOELA, EA ZERGATIK EZ
NUEN ERANTZUTEN...



ETA GAIZKI
HARTZEN DUTE
EZ ERANTZUTEA.

HORI DA, ETA
GAINERA USTE DUT IMAJINATU
DUELA BESTE NESKA BATEKIN
TONTOKERIAK EGITEN ARI NINTZELA,
BERE USTEZ KONEKTATUTA
NENGOEN ETA BEHIN ETA BERRIRO
ESATEN ZIDAN EA NOREKIN
ARI NINTZEN...

AZKENEAN MESFIDATI JOKATZEN DUGU,
MUTILOK SAREAK BAKARRIK AHALIK ETA
NESKA GEHIENEKIN EGITEKO ERABILTZEN
DITUZUELAKO. TXERRI HUTSAK ZARETE.



NAHIKOA DA, EZ ESAN HORI.
DENOK EZ DITUGU SAREAK
NESKAK LORTZEKO ERABILTZEN.
NIK ERABILTZEN DITUT JENDEA
NOLA DABILEN JAKIN NAHI
DUDALAKO ETA ADISKIDETASUNA
ZAINTEKO.

AZKENIK MAIDER HELDU DA TALDERA.



MAIDER, ZER GERTATU DA ANDERREKIN? LEHENGO EGUNEAN IKUSI GENUEN ETA HOR ZEBILEN...

TXEPEL HALAKOA! TITIAK ERAKUSTEKO ESKATU DIT, BERE LAGUNEK ERE ESKATU DIDATE WEBCAMEAN JARTZEKO, NIRE ARGAZKIAK PARTEKATZEKO.....!!!



NESKA, ZU ERE ZEURE ARGAZKI GUZTIAK ERAKUSTEN ARI ZARA ETA EDOZEINEK IKUSI DITZAKE, PROFILA ZABALIK DUZU ETA...

HORI DA ESZENATOKI BATEAN MILAKA PERTSONAREN AURREAN EGONGO BAZINA BEZALA.



JAKIN EGIN BEHAR DA ARGAZKIAK GORA KARGATZEN SOILIK ZEURE LAGUNEK IKUSI DITZATEN, MODU PRIBATUAN.



HALA DA, ETA SAREAN EZ DITUGU GUZTIAK SARTU BEHAR ADISKIDE MINAK BALIRA BEZALA, AUKERATZEN JAKIN BEHAR BAITA. SAREAN DENAK LAGUNAK DIRA ETA EGUN BATEAN EZAGUTUTAKO EDOZEIN GEHITZEN BADUZU...

HOBE DUGU MAMURIK EZ IMAJINATZEA ETA EGUN OSOA KONEKTATUTA EZ EMATEA. NOIZEAN BEHIN KALERA IRTEN BEHAR DA BENETAN.

SAREAK HARREMANETAN EGOTEN LAGUNTZEN DIGU... BAINA SAREAN NAHASI GABE!

ZUK PROFILAGATIK HARI BURUZKO IDEA BAT OSATU ZENUEN, BAINA GERO BESTELAKOA IZAN DA. SAREAK EZ DIRA BAKARRIK ARGAZKIAK GORA KARGATZEKO, GORPUTZ BAT BAINO GEHIAGO ZARA, NESKA.





